

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mahai-ingurua Antzuolan 1

*Antzuola,
Gipuzkoa*

Aurkibidea



Biografia



Zazpi antzuolar elkartu ziren berriketarako Jubilatuen Elkartean. Umetako kontu ugari: eskolako zigorrak eta mutikotako gaiztakeriak; Uzarraga auzoko sakristau-maisu-ile-apaintzailea; arto-bizarrarekin egindako zigarroak. Elizarekin lotutako mila gauza: Pazkoa txartelak eta “arbilorakuak”; elizmutilen kontuak; maristak; errogatibak; filmen zentsura; neska-mutilak aparte izateko neurriak, “Guerra al baile moderno” dokumentua... Erromeriak: Lizargarate eta Koixkar (Gorobizkar) Oñatin; Antzuolan, jaietakoak eta San Esteban egunekoak. Ohiturak eta esaera zaharrak, eta herriko pertsonaia ezagunen istorioak ere ez ziren falta izan tertulia alai honetan. Parte hartu zutenak, ezkerretik eskumara: [Florentino Lamariano](#) (1933), Sabina Agirre (1928), [Mateo Aranguren](#) (1934), [Julian Iparragirre](#) (1932), [Karmele San Sebastian](#) (1936), [Maximo Aristi](#) (1931) eta Azentzio Azkarate (1934).

Zintak

ANT-091

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-11-23
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

ANT-092

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-11-23
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Korua jausi zenekoa

- **Erref:** ANT-091/002
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:00:22. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

1942. urteko Andra Mari egunez Antiguako elizako korua jausi zen eta hainbat zauritu eta min hartutakoak egon ziren. Horri buruz dihardute, bizitako larritasunak, ikusitakoak... Telefono bakarra zegoen herrian eta kanpoko jendeari gertatutakoa kontatzea ez zen hain erraza. Herriko gizon bati buruz.

2. Gorriak zirelako arazoak

- **Erref:** ANT-091/004
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Herriko pertsona batzuei buruz dihardute. Abertzaleak ziren eta udalekoekin eta agintariekin izandako anekdotak.

3. Gurutzean gariz betetako galtzerdia umeez oinez ikasteko

- **Erref:** ANT-091/005
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:08:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Matxinbentako Maria Antiguako elizaren arduraduna zen eta hainbat baserritan garia eta artoa ematen zioten. Elizako gurutzean gariz betetako galtzerdi bat jartzen zuen, hiru buelta emanda umeez oinez ikasiko zutelakoan.

4. Elizakoak

- **Erref:** ANT-091/006
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:08:33. **Bukatu:** 00:10:56

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Monagilo lanetan elizakoak egiten urrutira joaten zen Azentzio. Orduan bizitakoak kontatzen ditu, anekdotak tarteko. Don Leandro parrokoa oñatiarra zen.

5. Francok hiri bat hartzerakoan, kanpaiak jotzen zituzten

- **Erref:** ANT-091/007
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:10:56. **Bukatu:** 00:12:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Asentziok dio, gerra garaian hiriren bat hartzen zutenean kanpaiak jotzen zituzten. Bartzelona hartu zutenean, ardo zahagia ere izan zuten denentzako. Beste behin don Eusebiok ez zien utzi sartzen eta aguazilarekin sartu ziren azkenean. Don Eusebio eta aguazila lehengusuak ziren, baina politika kontuan arerioak. Don Luisek sermoian "bombardeos gloriosos" eta "bombardeos kriminales" desberdintzen zituen.

6. Mezak ateratzea

- **Erref:** ANT-091/008
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:12:13. **Bukatu:** 00:13:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Inork ez zuen nahi izaten konfesatzera joan. Norbait hiltzen zenean, mezak ateratzen ziren.

7. Koixkarrera irteera eta Koixkarko eguna

- **Erref:** ANT-091/009
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:13:29. **Bukatu:** 00:17:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Elizako kantoreek Koixkar auzora egiten zituzten irteerak, ondo hornituta joaten ziren. Koixkarko eguna ekainean da. Jesusen bihotza.

8. Komunio txikia, "gaztaina zuloa", "arbi lorakua"...

- **Erref:** ANT-091/010
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:17:57. **Bukatu:** 00:19:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Komunio txikia ospatzen zuten. Komunioa hartzeko txartela ematen zuten. Konfesatzera joateari "gaztaiña zuloa" joatea esaten zien zaharrenek. Komulgatzeari "arbi lorakua" esaten zitzaion. Komunio txikia egin ostean komunio jenerala ospatzen zuten. Maximori don Leandrok erreberentzia egiteko eskatu zion.

9. Eskolan bandera jaso eta abestu behar

- **Erref:** ANT-091/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:19:59. **Bukatu:** 00:20:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Eskola txikira falangearen txapelarekin joaten ziren. Neskak eta mutilak bananduta egoten ziren. Eskolara sartu aurretik bandera jaso eta kantu patriotikoak abesten zituzten.

10. Txapela erantsi beharra; eskolan euskararik ez

- **Erref:** ANT-091/012
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:20:49. **Bukatu:** 00:21:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

Abade baten aurretik pasatzerakoan txapela erantsi eta "Ave María Purísima" esan behar izaten zen. Albaitariaren eta medikuaren aurrean ere erantsi behar izaten zen txapela. Eskolan zein maristetan euskaraz egiteagatik arazoak.

11. Maristetako maisuak giltza galdu zuenekoa

- **Erref:** ANT-091/013

- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:21:55. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Maristetako hermano Alejandro maisuak eguerdi osteko lo-kuluxkak egiten zituen. Behin giltza galdu zuen eta mutiko bat bidali zuen giltzaren bila. Ez zuen aurkitu eta bueltan jo egin zuen mutikoa. Giltzak, aldiz, bera lo zegoen tokian zeuden.

12. Marista siestatik esnatzeagatik jipioa

- **Erref:** ANT-091/014
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:23:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Marista bat siestatik esnatu zuelako mutiko bat jo zuenekoak kontatzen du Maximok. Maristak ondo jandakoak zirela diote,

13. Korutik emakumeei argizari-bolak botatzen

- **Erref:** ANT-091/015
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:23:49. **Bukatu:** 00:25:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Urria arrosarioko hilabetea zen. Behin argizari bolak korutik emakumeak jesarrita zeuden lekura botatzen aritu zen Maximo.</p>

14. Eskolako zigorrak

- **Erref:** ANT-091/017
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:27:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Eskolako zigorrak gogorra izaten ziren. Neskak mutilen eskolara bidaltzen zituzten zigor modura eta ez zen batere samurra ori ere.

15. Maisuari gazta opari eta bueltan egurra

- **Erref:** ANT-091/018
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:27:48. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Maisuari gaztaia opari moduan eraman zion behin ikasle batek. Esan zioten propina eskatzeko maisuari, maisuak eman zion bakarra egurtu itzela izan zen. Txerria hiltzen zenean neskek ere zer edo zer ematen zioten maistrari.

16. Irakasleei beldur eta erdaraz jakin ez

- **Erref:** ANT-091/019
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:30:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Maximon mutikotan ez zekien oso ondo euskaraz eta maistrarekin izandako elkarrizketa batzuk dakartza gogora. Behin gelako mutiko bat ez zen ausartu komunero joateko baimena eskatzen eta mahai azpira egin zuen. Maisu-maistrei beldurra izaten zien.

17. Lausagarretako katuari harria

- **Erref:** ANT-091/020
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:30:31. **Bukatu:** 00:32:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Mateok kontatzen duen istorio bat. Uda partean arbolak inausi egiten ziren hostoak ganaduari emateko eta itzun-abarrak gaztainak erretzeko edo labea pizteko. Lausagarreta baserrian katua egon zen itzun-abarren gainean. Beraien lagun batek harri bat bota zion katuari, baina harria leihotik barrura sartu zen. Katiluren bat-edo apurtu omen zuen eta eskolako maisua ere jakinaren gainean zegoen, eta ea zein izan zen galdezka hasi zitzaien.</p>

18. Astoa askatu zutenekoa

- **Erref:** ANT-091/021
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:32:06. **Bukatu:** 00:33:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Mateo eskolara bidean karobi baten ondotik pasatzen zen. Behin asto bat ikusi zuten han ondoan lotuta eta bere eskolako lagunak astoa askatzea pentsatu zuen. Lausagarreta baserrian garia gordetzen zen lekura sartu zen astoa. Hurrengo astean Azkaratetik bueltan joaten ziren eskolara.

19. Uzarragako eskola

- **Erref:** ANT-091/024
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:37:45. **Bukatu:** 00:39:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Uzarraga auzoko eskolan komuna txabola antzeko batean zuten. Eskolako lagun batek egindako gaiztakeria kontatzen du Mateok. Maisua ez zen jotzeko zalea, baina batzuetan erregela prest izaten zuen. Hilabeteen bi pezeta ordaintzen zituzten.

20. Uzarragako sakristau-bizargina

- **Erref:** ANT-091/025
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:39:13. **Bukatu:** 00:41:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Uzarragan mezara joan orduko bizarra mozten zien sakristauak auzotarrei, zortzi eguneko bizarra izaten zuten gehienek. Hainbat anekdota ezagun daude bizarra konpontzen joaten zirenekoa. Arabarra zen sakristau hori.

21. Auzo bakoitzean denda bana

- **Erref:** ANT-091/026
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:41:05. **Bukatu:** 00:45:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Asko ziren Araba aldera erdara ikastera joaten zirenak. Auzo bakoitzean denda

bana zegoen. Horietan bizitako hainbat anekdota dakartzate gogora, esnearekin zein ardoarekin bizitakoak, besteak beste.

22. Alkoholaren zerga

- **Erref:** ANT-091/027
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:45:42. **Bukatu:** 00:46:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Ardoa Bergaratik ekartzen zuten, Santosenetik. Beranduago, aguazila bidean jartzen hasi zen zerga kobratzeko.

23. Solitaria zizarea kentzeko

- **Erref:** ANT-091/028
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:51:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Traperoa batetik bestera aritzen zen lanean. Behin Maximoren anaiak solitaria izeneko zizarea izan zuen eta traperoak esan zien zelan bere amak zein metodo erabiltzen zuen.

24. Hesteetako bizioak izatea ohikoa zen

- **Erref:** ANT-091/029
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:51:19. **Bukatu:** 00:52:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Lehen hesteetako bizioak izatea ohikoa zen. Garbitasunak zerikusi asko zuela uste dute.

25. Mendian bazkaldu behar

- **Erref:** ANT-091/030
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:52:09. **Bukatu:** 00:55:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Mateo mendian lanean aritutakoa da. Esku zikinak bazkariarekin garbitzen zituztela gogoratzen du. Behin bazkalorduan gatzarekin gertatu zitzaiena kontatzen du.

26. Pospolo bustien ordeiz lastasua

- **Erref:** ANT-091/031
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:55:21. **Bukatu:** 00:56:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Mateo mendian lanean aritutakoa da. Bazkaldu ere han egiten zuten eta behin pospoloak busti zitzaizkien eta zein irtenbide aurkitu zuten kontatzen du.

27. Farol eta guzti putzura

- **Erref:** ANT-091/032
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:56:09. **Bukatu:** 00:56:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Maxiomok kontatzen du Lizargaratetik bueltan behin farolan utzi zizkietela, baina farol eta guzti putzu batera jausi zirela.

28. Lizargarateko kontuak

- **Erref:** ANT-091/033
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:56:58. **Bukatu:** 00:58:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Lizargarateko erromeria joaten zireneko kontuak kontatzen ditu Mateok.

29. Kaletik baserrietara gaztainak hartzera

- **Erref:** ANT-091/034

- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:58:09. **Bukatu:** 01:00:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gazteak zirela ohikoa zen kaletik gaztainak batzen joatea auzoetara.

Karmeleri behin esan zien zein baserritan zeuden gaztaina asko eta bertara joan ziren. Astoarekin bizitakoak dakartza gogora.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com